

PEDRO BERETERRA, ZURE ZERBITZURA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Napoles, 1528. Pedro Bereterra itsasgizon, militar eta ingeniari nafarra hil zuten Castelnuovo gazteluan. Karlos V.aren soldadu espainiarrek preso hartua zuten eta, itxuraz, gazteluko gobernadoreak berak asfixiatu zuen, Bereterra estimatuari urkamendiaren desohorea saihesteko aukera emateko.

1460 inguruan jaio zen Garden, Erronkarin. Gaztetan joan zen Italiara, Zangozan ezagutu omen zituen merkatarari genoar batzuekin batera. Haien zerbitzura hasi zen lanean eta, ondoren, Napolesko errege Fernando I.aren seme Joan kardinalaren agindupean jardun zuen, hura 1485ean hil zen arte.

Badirudi kortsario ere aritu zela Napolesen zerbitzura, horren berri zehatzirik iritsi ez zaigun arren. Florentziarrenkin bat egin zuen Genoaren aurka. Eta Adriatikoko itsas potentzia nagusi zen Veneziako Errepublikako ontziren bat harrapatzea ere lortu zuen.

1500ean Gaztela eta Aragoiko armadak preso hartu zuen eta haiekin bat egin zuen, nagusiki Afrika iparraldeko gerretan aritzeko. Orango konkistan eta Bugia nahiz Tripolikoko guduetan jardun zuen, besteak beste, eta Italian bertan, frantziarren aurka aritzea ere egokitu zitzaion. Fernando Katolikoak Oliveto konde titulua eman zion eta kapitain jeneral kargua lortu zuen. Frantziarrek



Ezkerrean, Pedro Bereterra (ca. 1460-1528). Eskuinean Fernando Aragoikoa, erronkariarrak gerora arbuiatuko zuen konde titulua eman ziona.

Ravennan hartu zuten preso 1512an eta, hiru urte giltzapean egon ondoren, konde tituluari eta karguei uko egin eta frantziarrekin bat egin zuen aurrez kide izan zituen espainiarren aurka, azkenean giltzapetu eta hil zuten arte.

Zenbait historialarik, espainiar historiografia militarrek nagusiki, traidoretzat jo izan du Pedro Bereterra, baina kontua da bere zerbitzua armadei eskaini baino, armadek eskatu zutela haren zerbitzua. Itsasoan trebea bazen, are



BURGOSKO MUSEO MILITARRA / KUNSTHISTORISCHES MUSEUM

estimatuagoak ziren haren gaitasunak lehorrean. Infanteria antolatzeke metodo berritzaileak erabiltzen zituen eta, batez ere, gotorlekuak erasotzeko mina bereziak asmatu zituen, garaiko gerra estrategietan eragin handia izan zutenak.

Iruñean bada Oliveto Kondea izeneko etorbide bat. Tituluari uko egin ziola kontuan hartuta, ez dakigu haren omezez ala gaitzespenez jarri zioten izena kaleari. ■

Kristobal Kolonen aurkikuntza klimatikoa

Amerikara egindako bigarren bidaiari, 1494ko uztaillean, Kristobal Kolonen ontziak Kuba eta Jamaikaren artean nabigatzen ari ziren, montzoiaren zaparradei nola edo hala eutsiz. Euri erauntsiek ontzien sotoak urez betetzen zituzten eta bero itogarriak ere ez zuen laguntzen janaria kontserbatzen. Espedizioa arriskuan zegoen.

Egoera kritiko horretan, hauxe idatzi zuen Kolonek: "Hemengo zerua, airearen egoera eta eguraldia ingurukoak bezalakoak dira; egunero hodei bat agertzen da, ordubete inguruko euri-jasa ekartzen duena, batzuetan gehiago eta bestetan gutxiago, eta herrialde honetako zuhaitz handiengatik gertatzen da hori". Koloni esperientziak esan

omen zion baso-estaldura eta prezipitazioak lotuta zeudela: berdin gertatu zen "Kanariar uharteetan, Madeiran eta Azoreetan, baina hango zuhaitzak bota zituztenetik ez dago hainbeste hodeirik eratzen eta eta ez du hainbeste euri botatzen". Beraz, deforestazioaren eta klima aldaketaren arteko loturaz jabetu zen. ■